


# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.org



HONAKO HAU ez da Iñaki Martínez de Lunak *Euskararen Framing* berri baten beharraz hitz egiten duen lehen aldia. Bere ibilbidea hurbiletik jarraitzen dugunok entzun izan diogu premia horren berri han-hemenka ematen. Aldizkari honetan, bertan, gaia duela hiru urte plazaratu zuen [BAT 76, 2010 (3)]; euskararen inguruko soziolinguistika-arloan aritzen garenok ideia hori sakontzearen premian geratu ginen artikulu harekin. Nolabait esan, bigarren partea eskatzen zuen sarrera izan zen orduko hura.

Orain heldu dio gaiari berriro Iñaki Martínez de Lunak BAT aldizkariaren gonbidapenari erantzunez. Gaian sakonduz eta ikerketa landu baten emaitza enpirikoa eskainiz, eztabaida irekirako proposamen zehatza egin du.

XX. mendeko 60ko hamarkadako giro politiko eta soziala abiapuntu hartuta, euskararen galerari norabidea aldatzeko diskurtsoak ekarri ditu gogora, Francoren diktaduraren amaiera aldeko garaietatik 1982ko euskararen legea onartu bitartekoak; alegia, urte horietako iritzi publikoaren bilakaerari begiratua eman dio egileak.

Garai haietan euskararen biziberritzearen aldeko jarrera Euskal Herrian modu oso orokortuan txertatuta zegoen. Baina Martínez de Lunaren iritiz, garai haietatik bertatik, “lo-planta egiten beste errealitate bat baze- goen” (16 or.): oro har euskararen aldeko ja-

rrera orokortua euskal populazioan zegoen eta baita neurri handi batean erdaldunengan ere. Baina azken multzo horrengan euskararen aldekotasuna “azalekoa eta konpromisorik gabea da [zen]” (18 or.). Eta konpromisorik gabe zaila zen aurrera egitea garai zail horietan.

Harrez geroztik bi *framing* edo diskurtso-mota garatu direla marrazten du Martínez de Lunak: jada gure artean ezagunak diren *Framing Aldarrikatzailea* (euskararen aldekoa erabat) eta *Framing Uzkurra* (euskararen inguruan oztopatzailea). Eta bi *framing* horien efektuak aztertu ditu komunikabideen ikuspegi, praktika edo agendaren baitan, komunikazio politikoaren eta komunikabideen eragin kognitiboaren lanketa teorikoan kokatuz, jakin bai baitakigu euskararen aldeko jarrerak aktibatzekeo determinantea dela komunikazioaren gaia.

Xede horrekin, 2011ko martxoan hasi eta urte amaiera bitarteko Hego Euskal Herriko 13 egunkaritako lehen orriak aztertu ditu egileak, finean, 13.537 albisteetako euskararen inguruko gaiak: euskarari eskainitako albisteak zenbat diren (ehunekotan/hileko), presentziaren bilakaera urtean zehar, zer-nolako gaiekin lotura duten albiste horiek (hezkontzari, lanari, hizkuntza-politikari...) eta abar. Jakina, hori guztia komunikabide bakoitzaren arabera antolatuta.

Garrantzia du ikusteak zer-nolako tratamendua eskaintzen dion medio bakoitzak euskarari edota euskal gaiari: lerro-buru nagusia edo bestelakoa den, kutsu baikorra edo ezkorra duen, baloratiboa edo neutroa den eta abar. Eta emaitza argia da: aztertutako albisteetan tratamendu baloratzailerik ia guztiak ezkorrak dira, euskarari buruzko albiste gehienei ikuspegi negatiboa darie. Hortaz,

berehala sortzen da lehen galdera: “euskarak aurrera egin dezan, egokia ote da albisteetan nagusitzen den kutsu ezkorra?” (40 or.).

Abiapuntu horretatik, ondoren, *framing* aldarrikatzailearen eta *framing* uzkuraren arteko talka eta gatazka bitarteko, eta biek ala biek dituzten elkar hurbiltzeko mugak kontuan hartuz, begi-bistara azaltzen zaio egileari *framing berri* bat eraiki beharra.

Eta horretan du gunea BAT Aldizkariko zenbaki monografiko honetako txostenak. Alde batetik, euskara biziberritzeko ahalegintetan ari den euskalgintzari mezua bidali nahi dio, diskurtsoa osatu edota moldatu beharra dagoela erakusteko; euskal gizartearen ezaugarri sozialak demografikoak eta politikoak oso ezberdinak direlako gaur egun duela 30/40 urte zirenekin alderatzen baditugu, eta ezinbestekoa delako aldaketa, baita arrazoi pragmatikoengatik ere (45 or.). Nolanahi ere, diskurtso berriak euskaltzaleari ere euskararen inguruko argudio eta euskarri sendoak eskaini behar dizkio (53 or.).

Hizkuntza-ekologiaren baitan kokatu du Iñaki Martínez de Lunak *framing* berriaren ardatza. Euskal Herrian dagoeneko tradizioa duen bilgune teorikoa izanik, ekolinguistikan oinarritutako *framing berriak* euskararen aldekotasuna piztu edota indartzea du helburu, diskurtso eta motibazio mota berriak eraikiz, edo jada existitu litezkeenak sendotuz eta he-

datuz, era horretan euskararentzako eremu sozial berriak lortu ahal izateko” (54 or.).

Martínez de Lunak Euskal Herriko egileen hainbat ideia bilduz (Sánchez Carrión *Txepetx*, Juan Carlos Etxegoien *Xamar*, Sarasua, Azurmendi, Erize, Hernández, Uranga, Coyos) zein nazioarteko (batez ere, Kataluniako Bastardas edota Fernández) honako diskurtso aldaketak proposatzen ditu, beti ere, eztabaidarako: 1) euskara berreskuratzetik irabaztera; 2) hizkuntzaz aldatzetik norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasunera; 3) integraziotik adopziora; 4) biziraupenetik ongizatera; 5) sakrifizioetik ahalegin saritura eta 6) bertako berariazko hizkuntzatik herritar guztien hizkuntzara.

Idea horien aldaketaren oinarria *Berdintasunaren diskurtsoan, Hizkuntza Iraunkortasunaren defentsan eta Hizkuntzen Ekologiaren* elkar eraginean kokatzen da. Oinarri hori hartuta posible litzateke egilearen ustez “euskararen inguruko bi sentsibilitate kontrajarririk mugiaraztea, eta, ondoren, bi-biak hizkuntza horren aldeko elkarlanean has daitezen ahalbidetzea (76 or.).

Txostenari erantzuna ibilbide luze eta eskarmentu handiko bost adituk eman diote. Hasteko, **Patxi Baztarrika**, egungo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburu ordeak, funtsean Inaki Martínez de Lunaren oinarrizko kezkarekin bat egiten du eta azpimarratu nahi du, euskararen diskurtsoari dagokionez, euskararen mundua ez dela kolore bakarrekoa, eta euskararen auzia gizarte-bizikidetzaren muinean kokatu behar dela. Patxi Baztarrikak euskara zein gaztelaniaren “ez inposatzea, ez eragozte, baizik eta egiazki bermatzea” hirukian kokatzen du, horretarako, adostasun soziala eta politikoa ezinbestekoa ikusten duelarik. Martínez de Lunare-

kin bat eginez hizkuntza-ekologiaren, berdintasunaren eta iraunkortasunaren ideietan etorkizun aukerak ikusten ditu.

**Xabier Erizek** hizkuntza ekologiaren gaiaren inguruan lehendik ere egin izan ditu ekarpenak, eta horietatik abiatuta urrats bat harago joan da, Martínez de Lunaren txostenari *marketingaren* ikuspegitik heldu baitio galdera-gako honi erantzunez: “Zer da balioa euskararen bezeroarentzat? Zer bilatzen du herritarrak euskara erosten duenean?” Merkatu-kuotan *framing* berri batekin gorantz egiteko, Martínez de Lunaren irtenbiderekin ados egonik (aniztasuna, berdintasuna, iraunkortasuna, ekologia, eleaniztasuna..) beste hainbat argudio ere planteatzen ditu: argudio demokratiko eta pluralista lehen mailan jartzea, diferentziazioa eta berrikuntza aldarrikatzea, indibidualtasuna eta arriskuak hartzea eta abar.

**Maria-Jose Azurmendik** bere aldetik, Martínez de Lunaren lanaren sakontasuna aitortuta, gaiak Euskal Herrian izan duen ibilbidearen berri ematen du. Eredu berriaren azterketa egiterakoan aurkitzen dituen onura ukaezinen ondotik, aplikagarritasunean topatzen dituen zailtasun nagusienei ere erreparatu die. Funtsean ados egonik Martínez

de Lunarekin, eztabaidarako gai berriak ere planteatzen ditu Azurmendi irakasleak, batez ere, euskararen *frame* berriak izan beharko lituzkeen lemen eta erabiltzen den terminologiaren inguruan.

Gaia are gehiago zabaltzen saiatu da **Paul Bilbao**. Bere iritzian, euskararen inguruko diskurtsoa ezin da ulertu hizkuntza-politikaren, komunikazioaren eta dinamika sozialaren ikuspegitik aparte. Hiruki horretan biltzen du Bilbaok euskararen inguruko estrategia nagusia. Eta horretan, gizartearen ezagutza sakona ezinbestekoa delakoan, eta homogeneotasunetik oso urrun egonik, xede talde desberdinen garrantziatik azpimarratu du bere ekarpena; bi *framing* baino gehiago ere egon badaudela gure herrian: “euskararen aurka dagoenaren parean ez dago, adibidez euskaraz bizi nahi duena. Euskaraz bizi nahi duena erdian dagoela esango genuke...” (145 or.). Beraz, komunikazio estrategiaz gain ezinbestekoak dira, gutxienez, beste bi osagai: euskararen aldeko hizkuntza-politika eragingarria eta euskararen aldeko aktibazio soziala.

**Iñaki Martínez de Lunak** izan du egile horien guztien ekarpenen inguruko azken laburbilketa egiteko aukera amaierako artikulua laburrean. Abiapuntuan agerian geratu da guztien adostasuna oso maila altukoa dela: “nork bere gustuko hari-muturretik tira eginez, egile horiek berresten dute hizkuntzaren bilakaera eta egoeraren gaineko txostenean egin den irakurketa: aurrerapausoak ematen ari diren arren, euskara gizarte osora hedatzeko mugak zein oztopoak oso nabariak dira” (148 or.). Azken azterketa eginez, irakurketaren ondoren irakurlearengan gailentzen den ideia etikaren beharraren garran-

tzia da. *Framing berriak* borroka politikotik harago egon behar duelako adostasuna hedatua dago, eta baita euskararen merkatukuota handitu behar delako ideia ere. Horretarako, *Framing Berriak* maila etikoko gaietan sartu beharra du. Hori da azken finean hizkuntza-ekologiak ekar dezakeen berrikuntza nagusia: zientziari begiratzeko modu desberdin batetik abiatuta, ikuspegi etikoaren zabalkundea: aniztasunaren printzipioan, berdintasunaren eta ekitatearen ekimenetan eta —hori guztia bilduz— “*bestelako euskal mundu bat* posible egiteko dimentsio etikoaren zabalpenean”.

Amaitzeko, BAT aldizkariaren 86 zenbaki honen GUREAN atalean argitara eman dugun artikulua Kolonbiako enbera hizkuntzaren biziberritze prozesuan euskal lankidetzaren proiektu baten berri ematen dugu. “Enberera hizkuntza Kolonbian: ahozkoasunetik idazterako bidean” izenburupeko artikuluan **Andoni Barreñak** eta **Mikel Mendizabalek** Kolonbiako **Baltazar Mecharekin** batera aurrera daramaten enbera hizkuntza erakusteko oinarritzko materialgintzaren berri ematen du. Proiektuaren helburu nagusia, hala ere, irakasle enberak alfabetatzea eta material sorkuntzan trebatzea eta gaitzea da, hemendik aurrerako lana euren esku izan dadin: “ororen gainetik, ezin da ahantzi indigenek euren lurraldea eta bizimodua kudeatzeko duten eskubidea” (173 or).•